

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Mila irakasle inguru hizkuntzak ikasten ari dira Hezkuntzako online bidezko plataforman

*Departamentuak irakasle interesdunentzat izena emateko beste epe bat zabaldu du maiatzaren 4ra arte*

Martes, 21 de abril de 2015

Mila irakasle inguruk ikasten eta hobetzen dituzte hainbat hizkuntzarako beren ezagutzak online bidezko hizkuntzak ikasteko plataforma erabiliz; plataforma hori Hezkuntza Departamentuak jarri zuen abian iragan otsailean.

Nafarroako sare publiko eta itunpekoan aktibo dauden irakasleentzat eskuragarri dagoen plataformak euskara eta ingelesa ikasteko materialak ditu A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetan; frantsesa, A1, A2, B1, B2 y C1.1 mailetan, eta alemana, A1 eta A2 mailetan.

Orain, Hezkuntza Departamentuak irakasle interesdunentzat izena emateko beste epe bat zabaldu du, eta maiatzaren 4ra arte zabalik izango da [irakasleen prestakuntzako webgune](#)aren bidez.

Baimenak eskuratzen direnean, atariak hizkuntza eta maila guztietarako sarbidea ematen du, eta erabiltzaileek haiek guztiak balia ditzakete nahi dutenean, ordutegi-malguekin, eta modu intuitibo eta arinean.

Programaren barnean ahozko ulermena eta irakurmeneko ekintzak sartzen dira, gramatikakoak eta hiztegikoak. Maila bakoitza sei ikasgai nagusi dituen moduluetan egituratzen da, eta beste bi berrikusteko eta finkatzeko dira, bat hiru ikasgaietako talde bakoitzaren amaieran. Hura gainditzeak ez dakar inolako ziurtagiri ofizialik.

### Eskaera handieneko hizkuntzak

Plataforman izena emanda duten 998 irakasleen artetik, 677k ingelesa ikasten dute, 177k frantsesa, 165ek euskara eta 66k alemana (irakasle batek hizkuntza bat baino gehiago ikasi edo hobetu dezake).

Ingelesaren barnean, eskaera handieneko maila oinarrizkoa da (A1), 149 erabiltzaileekin, eta haren atzetik maila altuena dator (C1), 118ekin. Gainerako hizkuntzetan, alemana, euskara eta frantsesa, eskaera handieneko maila oinarrizkoa da ere (A1), erregistratutako 49, 89 eta 86 irakasleekin, hurrenez hurren.